


# ZUTIK !

**61** ZK 1973

# E.T.A.'ren ageria
# comunicado de E.T.A.

**El proceso de la descentralización**
**Fisión del átomo y descolonización**
**Resistencia vasca a la integración**
**Euskadi colonizada**
**Genocidio cultural**
**Insuficiencia del socialismo y del nacionalismo burgués**
**Nacionalismo revolucionario**

Fondo documental **EHK** Dokumentu fondoa
Euskal Herriko Komunistak

# Zutik 61. Ageria Comunicado

octubre de 1970.

Euskeraz – Castellano

*Este trabajo ha sido convertido a libro digital por militantes de* EHK*, para uso interno y forma parte del material de trabajo para el estudio e investigación de la historia del MLNV*

**http://www.ehk.eus**

## ZUTIK! 61




### Sarrera

Prentsari kasu egin eskero behintzat, Burgos-ko epaitzak ateratako eskandalaren haundia frankist-erregimenaren basakeri zankarra argitan jarri zuleka izan zela usteko da. Bainan nik ez dut horrelakorik uste; zeren basakeri fazista hori probatzen ibili beharrik bai ote dago? Ez al dira, bada, egon, 1936 ezkero, nahiko espetxeratze, nahiko tortura eta nahiko epaitu, han eta hemen, iberiako penintsulan barreiaturik? Epaitza honek asaldatu ditu inongo konzientziak, Espanian eta Espaniaz kanpo; zergatik izango eta ezjakinei euskal-abertzaletasunaren problema ba dela agertu dielako. Garbi azaldu da, gertaera hau, berezia delarik ere, ez dela, halare, bakarra. eta nazio haundiek heuren ariora jarritako mugaz barru koloniak gordetzen dituztela. Burgos-ko akusatuek,

egonik erabat kateiatuta eta, nolabait esateko, erabat maniatuta, zentralkeria hauzitan jartzeraino iristen dira tarterik gabeko burruka baten prezioz. Trumoi gisako habarrotsa Europa-n zehar. Damagun exenpiu bat: hots, Frantsesei erakusten zaie, alegia Frantzia-ren historia “gure “probintzi guztien batasunarena baizik ez dela, batasun hori erregeekin hasi zela, ondoren Frantzia-ko Erreboluzioarekin jarraitu zueia gero XIX-an akabera emateko. Hontan gogorra behar zela izan, hori esan ohi zidaten eskolan; gure hizkuntzaren osotasuna eta gure kulturaren unibersalismua gurenean hain goiz heldu zen nazio batasunaren bitartez esplikatzen zen. Nahiz bateko hala besteko izan gure ikuspegi politikua, arazo hori ezin zitekean hauzitan jarri.

Pundu honeri buruz, nola komunistek hala sozialistek ados zetozten konserbadoreekin; honetan jakobindar zentralkeriaren ordeko ziren eta denek, nola konserbadore hala iraultzaile, ezin bananduzko batasun horren serbitzutan jartzen zuten erregimen berriaren ondasuna. Eman dezagun erregezaleen absolutokeria alkar-komunikatzeko era berriekin batera eta '' merkantiIisten'' Iege eta merkatu-dirutzakin batera sortu zela; eman dezagun Erreboluzioak eta Jakonbindarkeriak, garaiko feudal eta etnien azken hesiak saltatuz gero, ekonomiaren batasuna lortzeko aukera prestatu zioteia burgesiari eta baita ere, etniazko jatorriari begiratu gabe lasai asko harmetan altxatzen zirelako, kanpokaidean gudateak irabazteko modua; eman dezagun XIXgn. gizaldiak errematatu zueia "job"-keria industriaren poderioz eta honek dakarzkien ondorioen bitartez (hots, nekazarien kaieratzea, jendetzaren piiatzea, eta ideotogia berria edo nazionalismu burgesaren sorrera); eman dezagun baita ere gaurko batasuna, osotara hartuta, gaur egun gainetik dagoen klasearen betiko ikusmo idearen ondorio bat dela eta klase dominatzaile hau, Bidasoa-tik hasi eta Belgika-raino, nunahi, berari dagok ion tankerako gizon abstratu bat modelatzen etorri dela, betiko lege formal berdinez eta betiko obligazio egiazkoez definitua, — zeren demokrazian bait gaude !—, bainan inoiz egiazko beharrizanak kontutan hartu gabe, ordea. Gaur kontu hauetaz ez da inor arduratzen. Esanik dago eta bego hor. Nola esplikatu, ordea, 70-ko abenduan sortutako izua? nun nolatan probatu epaituen kontra botatako akusamenduek zuzenak zirenentz une berean ETA-k proposatzen dituen helburuak kontutan hartu gabe?

Mundu guztiak daki Espanla-ko gobernua fazista dela, hori egia da; protestatzaileen artean garbien ikusten zen gauza Franko-ren erregimena zen. Akusatuek defenditu beharra zegoen, bainan nola egin hori ETA-ko esaten bait zuen: gu ez gaude frankismuaren kontra bakarrik, baizik eta guk íehenbizi Espania-ren kontra burrukatzen dugu? Hona hemen irentsi beharreko pildura. Nola onhartu euskal nazioa ba zela Pirineoz bestekaldetik baldin ez badiegu “gure “Euskaldunei heurekin alkartzeko eskubidea luzatzen? Eta Bretania? Eta Ozitania? Eta Altzazia? Oraindik oraintsu Morvan-Lebesque-k zion bezela, Frantzia-ko historia azpikoz gora idatzi behar ote da?, edota bretoien saltzaile bat bezela konsideratu behar ote dugu Du Guesclin, zentralkeriaren héroe hori? Burgos-ko epaitzak ondorengo jasoera berri honetan tinkatuarazi ditu oroen begiradak: gobernu zentralistek "separatista” deituriko joerak alderdi guztitan pizkortzen datozela, alegia. URSS-en bertan, errepubiika asko dago zentralkeriatik ihes egin nahirik, esate baterako Ukrania-koa; oraindik berriki egin du Zizilia-k bere banaketa; Yugoslavia-n, Frantzia-n, Espania-n, lpar-lrlanda-n, Belgika-n, Canada-n, eta abar..., arazo sozialak etnia mailan mugitzen dira; "probintzia” izenekoek aberri bezela begiratzen dira eta aberritasuna eskatzen dute nahiko agerian. Ba dakigu gaurko mugak klase dominatzaüeen interesei dagokionez muntatuak daudela eta ez herritarren asmoen onerako; ba dakigu baita ere indartsuek hain harroki proklamatzen duten batasun horren azpian etnien zapalkuntza dagoela eta baita ixileko edo ageriko biolentzia ere.

Gaurko mogimendu abertzaleen indartzea bi arrazoi garbien bitartez esplikatzen da. Lehendabizi, atomikaren erreboluzioa. Morvan-Lebesque-k kontatzen duanez, Hiroshimaren lehertzetik ikasia jasoaz, honela oihuztatu ornen zuen Bretania-

ko autonomista burugazi batek: "Koino, ba duk bretoien problema, izan". Hain zuzen ere, leñen, inguruko herrien hasarreak norberaren etxeari ekar leikiokean irriskian finkatzen zuten zentralkeriaren batasun-zaleek heuren justifikazioa. Harma atomikua dela-ta, txanjaje honek ez du orain sasoirik; guda hotzazko zentralkeria Washington eta Mosku-tik zehar pratikatzen da, eta ez probintzietara begira nazioetara baino. Kolpetik, nazio hauek bloke batean edo bestean ¡ekutzeaz kezkaturik daudela somatzen dugun bitartean, une berean beste herri txikiago batzu, ustez integraturik zeudela ziruditenak, heuren nortasunaren konzientzia hartzen datoz. Bigarren arrazoia, lehenengoari lotua, azken gerratearen ondoren hiru kontinentetan zehar ematen etorri den deskolonizatzearen aballan edo prozesuan ikusten dut nik. Pentsa zagun, Finisterre-n jaiotako gizon gazte bat, 1960 aldera, Maghreb-en soldatu dagoela. Poliziari esku bat emateko dagoela han, esaten zaio, frantsesek itsas-haruntztik daduzkaten zonbatt departamentuetako ixkanbila errudun eta zoroa itzaltzeko. Bainan ikus hor Frantsesek nola etxeratu behar izan zuten Algeria-ri bere nazio nortasuna onartuaz gero, etxeratu bentziturik eta departamentuen zatiketa patrikan.

Zer esan nahi ote, beraz, aldatu-arazitako soldatu nonentzat, Finisterre-ko bízilagun bat izaiteak? Aiger-en hau ikusi bide du: hots, hango departamentuek badaezpadako banaketa abstratoaz zatiturik zeudela eta azpikaldetik indarraren eta kolonizazioaren poterea izkutatzen zela. Zergatik etzen, bada, orobat gertatuko Mediterraneoz haruntzttk, "Metrópoli" deituriko lekutan? Finisterre abstrazio bat iruditzen zaio gizon gazte honi, zeren administrazioan baizik ez bait da existitu; bera bretoia sentitzen da, ez gehiago eta ez gutxiago, eta frantsesa konkistaren deretxoz.

Soportatuko ote du, halabaina, kolonizatua izaitea? Tentaldiak jo baleza. Algeria-ko eta Viet-nandarren exenplua aski litzaioke iraultzari ekiteko. Viet-nandarren garaipenak zera erakutsi diote batez ere, alegia kolonoek bere eta bere anaien posibilitateak zuhurki mugatzen dituztela. Etsipena kutsutu zioten; Frantsesa izaki, esan zioten, oro zezakeala, zeren Beauceron-ek hainbateko eskubidea bait zedukan botoak emaiteko; Bretoia zen aldetik, berriz, eskurik ere ezin jaso zezakean ezta ere erdiko poterearen kontra jeiki, zeren bertan txikituko bait zuen.

Halabaina. Indotxina-ko zenbait miloia nekazari pobreek itsasora jaurti zituzten Frantsesak eta gaur-egun bizkorki gudukatzen dira kapitalista lurraldeko militar indar haundienaren kontra; eta ba zirudien, hau **ezinezkoa** zela. Etzen, ordea, ezinezkoa; posibilitateak kolpetik bezela jaulki ziren: indar kolonizatzaile hoiek ez ote ziren ausaz paperezko haginek Iituzkean tigrearen antzeko? Abertzaletasun orígínala duten "etnietan" hauxe ageri da: atomoaren deseintzea eta deskolonizatzearen fenomenua. Hau, sakonean, mundu guztiak daki; bainan askoek uste dute, Frantzia-n, Espania-n, Canada-n eta, askatasunarako borondate hori zozokeria bat dela eta bere gisa deuseztuko direla delako mugimentu separatista hoiek. Euskal Herriko exenpluak berpizte hori okasionala ez bainan beharrezkoa dela erakutsi digu, eta ez zela horrelakorik gertatuko baldin eta probintzi deituriko hoiek gizaldiz gizaldi kentzen etorri zaien herritasunik izan ez bazuten eta herritasun horrek. zapaltzaiieen partetik mantxatua eta tapatua egon arren, bertako jendeen aurrean funtsezko eta historiazko leku bat bezela iraun ez balu; nahiz-eta erdiko potereak bere baitan lekuaren berezitasun aitortu, halare, ez zen posible ¡zango ezer egitea baldin indar zapaItzailearen aurrean etniaren menperatasunaz jabetu ezik eta, ondorioz, autodeterminaziorako gartsuki burrukatu ezik.

"Beharrezkotasun" osoan Burgos-en inposatutako Euskaldunen kasoa ez da, nunbait, nahiko argibide izan Catalán, Bretoi, Gailego, Ozitanoentzako, heuren norakoaz jabetzeko alegia. Ni hemen burgesen humanismuak predikatzen duen unibertsalismu abstratoari euskaldunen unibertsalismu berezia kontra-jartzen ahaleginduko naiz; adieraziko dut zer-nolako egoera eta dialektika ekinak bultzatu duten herri hau mugimentu iraultzaite bat

sortzeraino, eta zer ondorío tekniku atera genitzaken razionalki egoera honetatik. Laburki esateko: zenen aldaketa latza ekarri lezakean gaur desentralizazioak sozialismu zentralista baten barman.

Aurre-iritziak at, eta historiari lotzen bagatzazkio, argi ageri da euskal etnía arras ezberdina dela hauzoko etniengandik eta, baita ere, ez duela sekula santan galdu bere nortasunaren konzientzia. **Bereziki** markaturik dago gaurdaino gorde duen bere izakera biologiku bereziagatik, eta markaturik **euskera**, bere hizkuntzagatik, ez bait da indoeuropeo izeneko hizkuntzen familiako. Vll-gn. gizaldian, mendian bizi ziren herritaldez osaturiko Vasconia dukerriak, Carlomagno-ren harmada menperatzen du Erronkariko gudatean. Gero, dukerri hau, X-gn. gizaldi aldera, Nafarma-ko erreinuan bihurtzen da; erreinu honek Xll-gn. gizaldian lur jotzen du eta, azkenik, 1515-an, Espania-ri lotzen zaio. Menperatua delarik ere, eta batez ere menperatua delako, euskal konzientzia, —edota euskalduntasunaren konzientzia—, indartzen doa. Feudal harotik urten urrean, artean Espaniako zentraikeria balantzaka dabil: bentzituei gordetzen dizkie, izan ere, Erdi Haroan edukitako zenbait eskubide, “fuero“ boraz euskal-erresistentziaren osoak defenditzen zituenak.

Herri hau ez da kontentatu izan hala moduzko autonomía hartzearekin, ezta ere ez du galdu izan inoiz askatasuna lortzeko esperantzarik ¡ eta esandakoaren proba bezela zera ekarriko dugu, Napoleón Europa bir-egiten ari zen garaietan, Enperadore honi Bizkaiako deputatu batek hain xaloki egindako proposamendua hots, sar zezala Inperioaren barman euskal Estadu libre bat. Ba dakigu zer jaso zen gero: 1812-ko Konstituzioak "fueroak” ia erabat kenduaz gero, abertzaleen mogimentuak lehengoari lotu nahiari ekin zion itsu-itsuan. Indar herrikoiek liberala bainan frantsesen modara zentralista zen Isabel ll-ren kontra altxatu ziren eta D. Carlos, absolutista eta aulki zalearen alde. zeren honek, nahiz eta antxinazale izan, behintzat, antxinatasunaren amoretan, Nafarroa-ri bere autonomi feudela eskuratu nahi zion. Bi gerra. eta bitan galdu; 1879 da, eta Euskadi-k bere azken pribilejioak galtzen ditu eta historiari sorbalda ematen dion tradizionalismu gizarajo batean murgiltzen da. Handik 6 urtera esnatuko da berriz ere, Sabin Arana-k P.N.V. (Euskal Partidu Nazionalista) fundatzean hain zuzen ere; partidu hau burgesek eta intelektualek osatuko dute batez ere. Ez dute burrukatuko absolutismuaren alde "fueroak” bir-etxeratu asmotan, ez ¡zeren P.N.V.-ek, politikuki aurrerazalea izaki, alde batetik askatasuna eskatzen du eta, bestetik, sozialki koserbadorea izaki partidu antxinazale batean iraunaz gelditzen da, ondoko esaera honek probatu dezakeanez: "Gora Jaungoikoa eta Lege zaharrak". Euskal-erresistentzikoek Espalnolen atetan jotzen zuten, (garai hartan bait zen bat baino gehiago entzuteko gertu, esate baterako Pi y MargalI anarkista), proposatzen zielarik soluzio federalista bat penintsulako problemeí buruz.

Zerbait geroago, Errepubiika-ko denboretan, asmo hori kontutan hartuaz gero, erdiko gobernuak erregioen autonomiaren printzipioa onhartzen zuen bainan kondizio batekin: hots, erreferendun baten bitartez asmo hori aprobatua izan zedila eskatzen zuen, herritarrek emandako heundik 70 gorazko botoen bitartez. Ipar-Nafarroak, funtsean nekazaritzari emana eta karlismuari atxikia, autonomiaren kontra bozkatzen du.([1]) [Handik laxterrera karlistek Franko-ren ondoan gudukatuko dira); beste hiru probintziak,. berriz, alde bozkatzen dute, eta maiori haundiz gainera. Errepublikako gobernuak, zirudien baino zentralistagoa izaki, ez bide du martxan jarri nahi asuntua, eta bertan bera dagoke 36 arte. Azkenean onartuko du autonomía, justu garai hortan, bainan onhartzen du mementuzko gertaeren indarrez eta bereziki arrazoi politiku eta militarrak eraginda. Izan ere komeni zitzaion Euskal Herria bereganatzea Franko-ren kontrako guda harmatuan lagundu zekion.

Arestian dakegu, beraz, fundatua Euskal Gobernua: hiru sozialista, bi liberal, kumunista bat; honek esan nahi du P.N.B.-ren inftuentzia giza maila askotara hedatzen dela

[1] Garbi dago Nafarroa ez zegoela autonomiaren kontra, Errepublikaren kontra baino.

eta apurka-apurka leundutzen doala hasierako koserbadore keria. Euskal gudariek su eta gar defenditzen dituzte Bizkaia eta Gipuzkoa 1937-ko apiriía arte. Bainan honatx dakiguna Franko-k indar barriak bidaltzen ditu haruntz, eta Gernika bonbardeoz kixkaltzen du bazterretan espantua sortzen duelarik. Hilak, 1500. Eta abuztuan Euskadi-ko Errepublika itzalia da. Gerra ondoren zapalketa dator: espetxeratzeak, torturak, epaiak.

Aguirre lendakari jauna, P.N.B.-ko burua, Frantzian izkutatzen da; bigarrengo gerratean demokraten alde jokatuko dute, sinisturik bait dagoz Franko eroriko dela Hitler eta Mussolini erortzearekin batera. Gaur neurtzen da zenbaterainokoa izan zen gure lotsa eta haien aingerukeria: beraz, P.N.B.-k jokatu zuen bere jokoa, eta 45 ezkero gero eta ahulagotzen dator. 47-an, — ziur-ziur oposioko indar Batuek proban jarri asmoz —, greba generala dator.

Indar batuek ez dira mugitzen eta honela Franko-k, bidea libre zedukalako, greba zapalketa izugarriaz suntsituko du. Eta hona hemen akabera: partiduak ba du Euskadi-n halako fama bat, euskal Errepublikako hasiera hartan sortutako partidu "historiku”bat izaitetik datorkiona hain zuzen ere. Bainan etzaio etorkizunik ikusten, harén ekintza-bideak ez bait dira gaurko egunerako egokitzen.

Atzerriratuek zahartzen doaz; Aguirre híl zen. Ez dio axolik, zeren laxter agertuko bait da ETA, partidu zahartuxe eta burgesaren ordezkari izaiteko mementu prexisoan. Aski zaigu laburpen txiki hau jakiteko nola Euskadi-k, Espania-ko **berriki** menperatutako etnia honek ukatu izan duen beti eta gogorki integratua izaitea. Gaur euskaldunei bozkatzen utziko balitzaie, ez dut dudarik egiten maiori zapa Igarri batez diferentziaz erabakiko lutekeala askatasunaren alde.

Onartuko at dugu, beraz. ETA-k dion bezela, Euskadi Espania-ko kolonia bat dena? Arazo hau benetan dugu garrantziduna, zeren koloniatan nahasten bait dira gehienik klase burrukak eta askatasun nazionalaren aldeko burruka. Izan ere, sistema kolonialista batean, metrópoli industrializatuak modu onean eskuratzen ditu herri kolonializatuetatik datozkion lehen materiak eta jateko produktoak. Hain zuzen ere, holakoetan, esku-lana bajutik ordaindua izan ohi da. Esan beharrean gaude Euskal Herria, Bizkaia eta Gipuzkoa-ko probintzíetan batez ere, industrial ¡zazio-martxa pizkorrean datorrela gizaldi honen hasieraz gero. Bi probintziotan, 1960-an, urteko eta biztanle bakoitzeko 2.088 k.W. argi-indar gastatzen da; Espainia-n eta Catalunia-n, berriz, 650 K.W.([2]) Galtzairu produzioa, urteko eta biztanle bakoitzeko, 860 kg, da Bizkaia-n; 45, Espania eta Catalunia-n. Lana egiten dutenen banaketa honela arkitzen da Gipuzkoan lehenengo mailan, 9,45 %; bigarrenean, 56,80 %; hirugarrengoan, 33,75 %; Bizkaia-n: 8,60 %, 57,50 %, 33,90 %. Bainan, konparazio batez, Espainia-k eta Catalunia-k lehenengo mailan 43,50% enpleatzen dituzte; bigarrengoan 27,20%. Azken bi sektoreak gizentzen datozela ikusirik eta, bidenabar, kontutan harturik nekazaritza beheraka doala, nahiko dagoala dimdi Euskal Herriak dadukan industri-indarra.

Alderdi honetatik begiratu ezkero behintzat, Guipuzkoa eta Bizkaia ditugu iberiako penintsulako herrialde gidariek.

Koloniatzat jo ezkero, berriz, begira zenen gauza txokantearen aurrean aurkitzen geran: hots. herri koloniazaitzalea pobrea eta nekazaritzan diarduena dela eta, bestetik, herri kolonializatua aberatsa dela eta bere demografiazko maila arras industrializatutako gizartearen parean dagoela.

Bainan gauza hobekiago ikusi ezkero, ordea, paradoxa hori itxurazkoa baizik ez da; Euskadi aurrerantza joan daiteke, hori bai, bainan 2 miloi baino ez du; 1515-an askozaz txikiago zen eta garai haretan herriak nekazaritzan ziarduen. Euskadi konkistatua izan zen mugaz banatutako bi herrialdeok antzeko egitura zutelako eta bat bestea baino

[2] Nolanahitara ere, Espania eta Cataiunia guztiz ezberdinak izaki, ez genuen estadistika komunik jartzen ibili beharrik izanen baldin eta dakarzkigun datu ofizialok nahita nahasian ez baletoz. Dudarik ez dago, alegia Espania-ko numeroak bakarka eman bagenitza, askozaz ere bajuago gelditukо lirakeala.

jendetuago zegoelako. Bidasoaz bestekaldetik, Hego Nafarroa sistemaz desjendetua, narrutua eta arruinatua izan da frantsez konkistatzailea zela bitarteko; hemen garbiago ikusten da koloniazioa. Baita ere garbi dago Espania gizaldiaren lehenengo hogei eta hamar urtetan zehar lotan egoteak bidea zabalik utzi ziola Euskadi-ri, erregio mailan, ekonomi aberatsez ornitzeko, batez ere Bilbao zelarik ardatz-ekonomiku. Zenentzako ote da, ordea, ekonomi hori? Honatx galdera. Erantzun antzeko bat eman daiteke esanez, alegia ez dagoela exenplurik herri zapaldu batek bere jauntxo zapaltzaileari zerga ordaintzen ez dionik. Goazen datu ofizialetara, hau seguruago delako. Honela jakinen dugu Espania-k Euskal Herriari benetako lapurketa egiten diola fiskalki, zeren fiskalek jipoitzen bait dute langilea.

Penintsulako fiskal-kargarik igoena Gipuzkoak daduka. Oraindik areago: "espainoia" deituriko probintzi "guztietan", inpuestotan jasotzen dueña baino gehiago gastatzen du gobernuak: 150 % Toledo-n; 151 % Burgos-en; 164 % Avila-n, eta abar. Euskal Herriko bi probintzi industrializatuenek, berriz,([3]) atzerriko gobernu esplotatzaileari 4 mila 338 miloi 400.000 pezta pagatzen die; eta ordainetan espania-ko Estaduak 774 miloi pezta uzten du Euskadi-n.([4]) Beraz, 3 mila 500.000 pezta lapurtzen dio kastilako desertuaren amoretan. Esandakoari gaineratu dezaiogun "itzulitako"774 miloi hoietátik gehienbat zapalkuntza organoetara dala (hots, administrazio espainol eta espainolizatuara, harmada okupatzailearengana, poliziengana, t r i bunaletara), edota deseuskalduntzeko deta (hizkuntza eta kultura espainolak baizik erakusten ez diren ikastetxetarako). Euskal industriaren problema, beraz, produkziogintzarenean dago; munduko merkatuari begira konpetitzeko prezioetan produzitzeko, makina gaurkotuak beharko I iraké kanpotik ekarri; Espania-ko Estadua, erdizka bederen bere buruz bait dabil, honen kontra dago; Madrugo kreditoei bagagozkie, berriz, honek bereixketak egin ohi ditu eta Castila-ri laguntzen dio Bizkaiaren lepotik.

Bilbaoko eta Pasaiko portuek ezin dezakete tonelada haundiko barkurik har, ezta ere itsasoko trafikua behar bezela egokitu, erabat errotik berritu ezik; nahiko haundiak lirake egin beharreko lanak, handia baita ere arrantzarako portuek eskatzen duten konponketa. Ez da, ordea, deus egin. Orobat gertatzen da garai batean Espainolek muntatutako tren-bidearekin. Oztopo astun bat baizik ez da. Trenez Bilbao-tik Gazteiz-era joateko 137 k. egin behar da; kamioz, berriz, 66. Administrazioa eta **I.N.C.** (hots, Industriako Instituto Nazionala), Estadu zapaltzailearen organua, burokrata ezjakin batzuen eskutan dagoz, eta hauek ez dakite deuz zer nolako beharizanak dagozen herrian (eta hau, teoriaz behintzat eta zati batean, Espania-ko probintzi bat bailitzan kontsideratzen dutelako izanen da), eta honela, jakina, konponketa larrienak egiteko ere oztopo bilakatzen dirá. Espania-k etxerako jasotzen ditu konpententzirako balio ez duten produktoak. Alderantzizko tarifa prefentzialaren politika pratikatzen du. Begira nola: alde batetik zonbait kosten prezioa jeixten utzi gabe euskal produktoak eskeintzen ditu kontsumitzeko, bainan, une berean, produziogilearen irabazia igo gabe bertan iraunaraziaz. Hemen ondorioa bistakoa da: "per capita" izeneko etorria penintsulako igoenetako bat da, bainan honek ez du ezer esan nahi, zeren jornaladunen etorria (hots, lanean dabiltzan ehundik 85-na) Madrugo, Burgosgo. Valentziko, eta abarrena baino askozaz bajuagoa bait da.

Har dezagun kontuan, 1955-1967 bitartean, jornalen tasa goratu zenean, Espania-n urteko ehundik 6,3 igo zela eta Euskadi-n. berriz, ehundik 4,15. Honela, bada, industrializazio marduleko herriaren mezpreziotan, kolonizazio klasikuan eman ohi diren funtsezkp elementu bi ikusten ditugu: alde batetik lapurketa bat dela — fiskala izan nahiz besteren batherri kolonizatuaren kontura, eta bestetik lanileen goi-esplotazioa. Eta honi bi lehenengoen ondorio ez den beste hirugarren bat gaineratzen zaio: hots,

[3] Nafarroan, espania-ko gobernuak 106 % gastatzen du.

[4] Zifra hauek 60-70 tarteko egoera bakarrik dakarte, bainan urteroko konstante baten adierazle dira.

emigrazio ta imigrazioaren habaila. Industrializazioak dakarzkien behar-izanetatik aprobetxatzen du Espania-ko gobernuak lanik gabeko herrialde hutsetatik jendetza Euskadi-ra bidaltzeko.

Hauei abantalla onak eskeintzen dizkie (esate baterako, etxe-bizitzetan lehenengotasuna), bainan esan dezagun jende hau, Euskaldunek bezela oso esplotatuak eta behar haínbesteko klase-konzientziaz jabetu gabe egonki, patroiarentzat esku-lanerako dagoen masa bat baizik ez dela. 1.800.000-tik 2 miloi-ko herrian, 300-dik 531.000 kanpotar zegoen. Bestalde, berriz, herrialde pobreetako Euskaldunek kanpora irten behar; batez ere Nafarrak: 150.000 Euskaldun zegoen Madril-en, eta hauetatik 100.000 nafarrak. Garrantzi handiko puntada hau eta Espaniako langileen sarrera industrializatutako herrialdetan, hau guzia jo daiteke kolonial-desegitearen aurre-hastapen bezela. Bistan dagoanez. Bizkaiako eta Gipuzkoa-ko patroi handien patrikak frankismoaren une oroko politika honetan inplikaturik dagoz. Hauek, izan ere, han Bilbaon burgesia nagusia agertu zeneko gerra kar listen ondoren, zentralistak eta I ibera I ak ziren.

Zenbait urte geroxeago, enpresa gizenen sozialaulkiek Madril aidera joko dute. Espania-k konpententzirik ez bait du eta bakarka bai dabil, bentajak baino ez ditu ikusten goiko burgesiak edozein berrikuntza frenatzean. Munduko mailan konpeti ezin dezaketen produktotik bizi da Espaniako merkatu zabala. Patroiak, inbestizio gogorretara behartu gabe, ondasun arras haundiak bereganatzen ditu. Herriko benetako interesak bost axola zaizkien ''collabos" hauek, euskal-ekonomia heuren zentralkeriagatik arruinatuko zuten hauek, herri-komunidadetik at gelditu dirá, eta "compradores" deiturikoen joko berbera darabiikite, joko klasíkua hau ere. Azken azterketa batean, beraz, eta sistema zentralista baten finkaturik daudelako, halako malthusiakeri baten pean babesten dirá.

Ondorioa garbia da: itxurak itxura, euskal langilearen egoera langile kolonizatu baten guztiz antzeko da, zeren ez bait da sinpleki esplotatua, esate baterako klase burruka "kimikuki garbia"daramaken Castila-ko langilea bezela, baizik eta deliberamendu osoz goi-esplotaturik dago, Ean berdinean Espania-ko langile batek baino gutxiago irabazten duelako. Beraz, **herria** goi-esplotatu egiten du erdiko gobernuak "compradores"hoien bitartez, eta hauek goi-esplotazio konsentítu hortan oinarriturik, langileak esplotatzen dituzte. Goi-esplotazio honetaz ez dira aprobetxatzen euskal kapitalistek, inpuestoz kargatutako esplotatzaile ximple batzu direlako, bainan bai Espania kanpotar harmadaren anparoan ¡ hots, amerikar inperialkeriaren sostegu pean dagoen gizarte fazistatua aprobetxatzen da goi-esplotazio horretaz. Halabaina, langile klaseak ez dira beti goiesplotazio honetaz konturatzen, eta hori dela-ta langile askoek pentsatzen zuten, oraindik berriki, Madril-go eta Burgos-ko langileen eskabide eta ekintzekin bat egin behar zutela; jakina, jokabide honek zentralkeri negatibu batera bideratuko zituen. Ulert-arazi behar zítzaien alegia, Euskadi-ko kasuan, ekonomi-ko kasuan, ekonomi eta sozial arazoa nazional mailan planteatzen dela. Herriak okupatzaileari zerga fiskalik ordainduko ez dionean, bere benetako problemak Madril-en ez bainan Bilbao eta lruna-n planteatu eta konponduko direnean, ordu hortatik irauliko ditu libreki bere egitura ekonomikuak.

Esan dezagun berriro: Euskaldunak **euskaldun** direlako goi-esplotatzen dituzte Espainolek. Inoiz ofizialki deklaratu ez duten arren, halare konbentziturik daude Euskaldunek beste **nor batzu** direla, nola etniaz hala kulturaz ere. Gerra karlisten, 1936-ko Errepublikaren eta 1947-ko grebaren akordua ahantzi dutela pentsatu behar ote da, gero? Hauek denak gogoan izan ezik, nola demontre esplikatu euskal hizkuntza suntsitzeko duten amorrazioa? Garbi dago hemen pratika kolonial bat dagoela jokoan: Frantsesek ehun urtez ahalegindu ziren Algeria-n árabe hizkuntza izkutarazi nahiez; hau lortuko ez bazuten ere, lortu zuten ordea árabe literarioa gehiago erakutsiko ez zen hizkuntza hila bilakatzea; gauza berbera jaso da euskerarekin Hego Nafarroan eta Bretana-n bretoiekin, bainan zorte desberdinez. Honela, bada, sinets arazi nahi zaio mugaz bi atderditan dagoen etnia

oso bateri bere hizkuntza hiltzear dagoen dialekto bat baizik ez dela. Hego Euskadi-n pratikuki debekaturik bezela dago bere usantza. Ez dute nahi **Ikastolak** munta ditezen, euskerazko zenbait argitalpen zokoratu egin dituzte, eskolek eta Unibertsidadeak zapaltzailearen hizkuntza eta kultura erakusten dute; irratia, zinema, telebisioa, egunerokoek eta abar, espainolez esplikatzen dituzte Espania-ko problemak Madrugo gobernuaren propaganda eginez. Hori dala-ta, kanpotarrek hartara beharturik, garrazki esan ohi da Bilbaon: "Horra, euskal hizkuntza eta kulturak ez dute ezertarako balio". Eta prentsak ispiraziez eta pozetan esan ohi du Unamunoren zoritxarreko esaera hura: "Euskal kultura laxter hilgo da". Oraindik gehiago: eskoletan zigortu egin ohi dituzte euskeraz mintzatzen diran mutikoek. Herritxoetan, bai, nekazariek mjntza ditezke euskeraz. Bainan kontuz urian hitzegitearekin. Kara: Burgos-go akusatuetariko batek ba zuen bere altaren bisita hartzeko baimena, bainan kartzelan euskeraz mintzo zirela ohartu orduko kendu egin zioten, eta ez noski inor probokatu nahi zuelako. beste hizkuntzarik etzekialako baizik.

Euskera indarrez izkutatu nahia egiazko kultural hilketa bat da, Europa-ko hizkuntzarik zaharrenetako bat delako izan. Egia da, bai, kontinente guztiko ekonomia lurlangintzan finkatutako garaikoa dena; bainan, gero, airoski egokitzen etorri ez bada gizartearen eboluziomartxan, esanen dugu espainol nagusikeriak ukatzen ziolako izan zela. XX-gn. gizaldiko hizkuntza bilaka dedin, — gaur egun erdizka ba dena —, bera mintzatzeaz aski litzake. Hebreoak Itsraei-en eta bretoiak Ouimper-en, biok zailtasun berdinak aurkitu zituzten eta baita erabaki ere: informatikaz edota atomoaren zatiketaz diarduten Israeldarrek guk Racine edo Corneille irakurtzen ditugun bezelatsu irakurtzen dituzte haiek ere itsas Hilako manuskriptoak; eta Morvan-Lebesque-k dionez bretoiak egungo errealitaterako regularidade gehiagoz jositako hitzak ornen ditu frantsesaren ondoan, eta hau hizkuntza "nazionala" delarik. Indartzen utzi ez zitzaion gazte gordetako hizkuntza zahar baten sustraiak kontutan hartzekoak dirá. Euskera Euskadi-ko aberri-mintzaira izaitera helduko balitz, berekin lituzke, bere egitura proprioak tarteko. antxinako aberastasun guztiek, pentsatzeko eta sentitzeko modu berezi bat, eta orainari eta biharkoari oparotsu zabaldua egonen litzake. Bainan Espainolek nahi dutena hauxe da: euskerarekin batera euskalnortasuna hil. Bizkaitar batentzat **euskalduna izaitea**, hain zuzen ere, euskera mintzatzea da; ez noski berari baizik dagokion igaroa eskuratzen duelako bakarrik, euskeraz mintzo den alkargo bati, bakardadean dagoelarik ere, mintzo zakiolako baino, batez ere. Burgos-ko "akusatuen” azkenengo deklarazioak euskeraz eginda zegozen; juzgarazi nahi izan eta ezin ezer uiertuz zegoen espainol tribunala onhartzen ez zutelarik, han herri oso-osoa aurkitzen zen presente salan. Istantera, gauza bitxia dator. Hitzez hitzezko prozesu ofizialak ohar-arazten du akusatuek inork ezer ez ulertzeko proposamenduak zeduzkateia eta "euskera zirudien”hizkuntza-edo zerabilkitela.

Zenen eufemismu zoragarria juezek ez zuten izpirik ere entenditzen, bainan ba zekiten ongi asko nun zegoen kakoa ikusten zuten Baskonia-ko nazioa epailekuraino sartu zela eta honen aurrean ez-jakinarena egiten hasi ziren euskera hizkuntza "probable"-kotzat joaz eta zalanzan jarriaz galdetutakoek benetan hitzegiten zutenentz edota zentzurik gabeko hotsak esaten zituztenentz. Honatx Euskadi-ko kulturaren muina eta zapaltzaileen buruhausterik larriena; hizkuntza hil batezate, Euskalduna (bere hizkuntza ez den eta inoiz izan ez den) espainola deseatu eta mintzatuko lukean gizon abstratu bat litzake; bainan halare goiesplotazioak jarraituko bait luke, aski litzaioke kolonizazioaz jabetzea euskera salbatzeko. Aldez beste ere berdin litzake: kolonizatu batek bere hizkuntzan mintzatzea, berez da ekintza iraultzailea.

Gaurko Euskaldun konsientzidunek oraindik aurreago doaz ematen zaien kultura nolakoa den zertzean eta zer-nolakoa nahiko luketean esatean. Diotenez, kultura gizonatik gizonako kreazio bat da. Ondoren diote, ordea, ez dela posible izanen kultura unibertsaia bat zapalketa unibertsala batek

dirauken bitartean. Gaur Euskadi-n dagoen kultura ofiziala unibertsalista hutsa da, zeren Euskalduna gizon unibertsal batean bilakatu nahi bait du, hots, nazional jatortasun orotatik erantzia nahi luke, erabat espainol baten antzeko litzakean herritar abstratu bat; honetan bakarrik litzake diferente, hau da, bera ere goi-espfotatua dela eta berak hori ez dakiela. Sentidu honetan, beraz, ez legoke zapalketaz bestelako unibertsalitaterik. Gizonek, ordea, gehien zapalduta daudelarik ere, ez dira **gauza** huts bilakatzen; aitzitik, inposatzen zaizkien kontradizioak ukatu-ekinean diardute.

Hau gizonen norberarengandiko gainezkatze eta proiektubide izaitetik letorke, ez borondate-bidez lehenik. Honeia. bada, Euskaldunek, lehen-lehenik. bakoitzari ezarria izan zaton gizon espainol hori ukatu beharko dute. Eta ez nolanahiko ukazio abstratuz, oso zehatzez baino, heuren nortasunari eta ingurumariari dagokionez borobildua. Sentidu honetan, euskai kultura, gaur, **ukaziozko kultura** behar luke izan lehenik; hontarako espainol kultura birrindu beharra dago, eta baita ere indar zentralisten human¡smu unibertsal hori; orobat, entseiatu behar du ahalegin aspergabekoz begien aurrean dadukan euskal errealidade hori bereganatzen — ikus paísajea, ikologia, etniazko ezaugarriak, euskerazko literatura —, bereganatu orain zapaltzaileak kanpoko turistei folklore inozo eta aguretu baten kutsuz eskeintzen dien errealidade hori.

Arrazoi honegatik dakarte beste hirugarren formula hau: hots, Euskal Herri ko gizonatik gizonaganako zapalkuntza honetan oretutako "praxisa" bertatik dator euskal kultura. **Praxis** hau, ordea, ez da kolpetik deseatzen den zerbait edota berez konzientziduna dena; kultur ofízialaren razional keriak zuzen-zuzenki zirikaturik, eguneroko iangintzan mamitzen dator baizik, konkretua bir-aurkitzeko, ez zerbait generala litzakean gizon bat. gizon euskalduna baino. Bainan lan honek **praxis** polttiku batean burutu beharko du, zeren gizon euskalduna ez bait da bere osotasunera helduko **bere** jabetasuna lortutako herrian ezik.

Honela, bada, halabeharrezko dialektikaren poderioz, konkistaren eta zentralkeriaren eta goi-esplotazioaren ondorioak direla arrazoi, eta Espania mila ahaleginez itotzen entseatu arren. Euskadi-n zutik gorde ana! izan da askatasunaren egarri bizia. Zertu dezagun orain zeintzuk diren gaurko egoera konkretu hontako esijentzi zehatzak, hots, zer burruka-mota libratzen datorren gaur euskal herrian. Espainol zapalkuntzari buruz, hain zuzen ere, bi erantzun-mota dago, eta biok ditugu desegokiak. Hau nolabait haragitzeko, esan dezagun bata Euskadiko P.C.-na dela eta bestea, berriz, P.N.B.-na,

P.C.-k Euskadi leku geografikutzat bakarrik daduka sinpleki. Madriltik jasotzen ditu ordenak, hau dala-ta zentralkerian jausten da — sozialki aurrelaritzat eta politikuki konserbadoretzat dadukagu —; euskal langileak klase burruka "kimikuki garbi" batera bultzatu nahi lituzke.

Ahantzi egiten da arazoa herri kolonizatu baten arazoa dela, goiesplotatutako batena alegia. P.C.-k ez bide du ikusten — nahiz eta Burgosko prozesukoan, eta kalterako, ETA-ren alde komenientziko zenbait deklarazio egin — zenen jomuga desegogizko eta, beraz, norakorik gabeko ekintzak proposatzen dituen. Euskaldunek, espainol langileriari burgesia frankista botatzen laguntzeagatik, esplotazio huts eta garbiaren izenean bakarrik burrukatuko balute, heuren etxeko problemak abandunatuko lituzkete. Eta hau norbere buruaren deseuskalduntzea izanen litzake eta, kapitalisten zentralkeriaren fruitu den gizon abstratu eta unibertsalaren izenean, gizarte sozialista baten eskabide hertsitara mugatzea. Jo dezagun gizon honek ba duela Madrilen bere poterea eta lanerako istrumentuak, bainan orduan non ote legoke Euskaldunen garantía eta segurtapena **autonomía eskuratzeko**? Honetaz ez da deus segururik; Errepublikari ere belarritik tiratu behar izan zitzaion; herri sozialistek, gaur eta hala nahirik, kolon¡alista bilakatu dirá.

Euskaldunek **bakarka** burrukatu beharko dute goi-esplotazioaren eta deseuskalduntzearen kontra. Honek ez du esan nahi, ordea, halako paktu taktitu batzu eginen ez direnik zenbait mogimentu iraultzaleekin, batez ere Frankoren diktadura

zanpatu-orduan. Bainan estrategia aldetik ezin onartu dezakete zuzendaritza komun bat; hemen burruka bakardadean eraman beharko da, zeren Espania-ren kontra bait doaz — ez, ordea, espainol herriaren kontra —, eta honen arrazoia honetan datza: alegia herri kolonizatu batek ezin dezaiokela esplotazíoari errematea eman, baldin, jauntasun osoz, koIonizatza Mearen kontra zuzenki jeikitzen ez bada.

Beste modu batera bainan P.N.B. ere ekibokaturik dabil, zeren askatasuna, besterik gabe, helburutzat jotren bait du. Dio: egin dezagun lehenik euskal Errepublika bat; gero ikusiko da zer-nolako konpoketak egin gure herrian. Eman dezagun, konparazio ezinezko batez, alegia burgesia tankerako euskal Estadu bat sortzen dela; orduan zera gertatuko litzake, alegia espainol goi-esplotazioari errematea emango litzaiokela, hori bai, bainan denbora gutxi barru amerikar kapitalismuaren pean eroriko litzake Estadu hori. Gizartea kapitalezko egíturetan dirauken bitartean, pentsatzeko da "compradores" hoiek gehien eskeintzen dien hoiengana arrimatuko direla: beraz, kanpoko kapitala sartuko litzake herrian, eta USA-k gobernatuko luke bertako burgesiaren medioz, eta kolonianismuari beste kolonianismu berri batek jarraituko lioke eta, nolabaiteko zuhurtasunez esateko, goi-esplotazioak jarraituko luke. Gizarte sozialista batek bakarrik eduki ditzake, eta irrisku handiz gainera,([5]) har-eman ekonomikuak beste herri kapitalista eta sozialistekin, eta hau berak bere ekonomia fermuki kontrolatzen duelako da.

Bi erantzun-mota hauen ezinak (hots, P.C.-na eta P.N.B.na). garbi erakusten du askatasuna eta sozialismua, Euskadi-ko kasuan, medaila berbera baten bi arpegiak bezelatzu direla. Beraz, askatasunarako eta sozialismurako burruka bat bakarra behar du izan. Hau honeia delarik, langile kfaseak gidatu behar du iraultza, ikusi denez bera bait da ugariena. Esku-laneko langilea. goi-esplotazioaren eta bere aberriaren kontzientzia duefarik, berealaxe baitaratzen da bere bokazio sozialístaz. Esan ote dezakegu hontaraino heldu dena? Hau beste zera bat da; hontaz geroago mintzatuko gera. Bestalde, kolonizatutako herritan jaso ohi da honako hau ere, alegia, erdi mailako klaseetan, garrantzl haundiko zenbait taideek baztertu egin ohi dutela kultural desnortasuntzearen arazoa, eta ez dira gehiegi konturatzen zer nolako ondorio sozial dakarzkien ukazio honek. Hauek, printzipioz behintzat, langileriaren elkartekoak dirá: Iraultzaile eta bere eginkizunaren konzientzia dadukan mogimentu batek, koloni batean diogu, ezin onartu dezake gidaritzat metrópoli batean baizik sentidurik ez duen "klasea klasearen kontra" delako printzipio hori; aitzitik, burgesio txikiaren eta intelektualen printzipioa onartu beharra dago, bainan kondizio batekin halare: erdiko klasetik ateratako iraultzaileek maiiatu ditezela langileri klasearen zuzendaritza pean. Egitear dagoen lana, oraindik hasteko, piskanaka argituz doaken bi puntu hauetan dago: langiteriak bere egoera kolonizatutako herri batena dela ikasi beharko du eta beste klaseek, berriz, errexago nazionalista izaki, koprenitu behar dute sozialismua dela, nazio kolonizatu batentzat, jabetasunerako bide bakarra.

Ikusirik ehun eta berrogei eta hamar urtez zehar askatasunaren aldeko Partidua nola aldatzen etorri den, eta ikusirik, ektntzaileak aldatzearekin batera, **fueroak** Estadu absolutista batean lekutzeko garai hartako asmo antxinazale hura nola kanbiatua izan den orain gizarte libre eta sozialista bateruntzko esijentzi berritan, erabat geroari zabaldua, arrazoi hauen ondoan dakargun beste arrazoi bat, iberiako penintsulari bereziki dagokion eta Euskaldunen burrukari aparteko berezitasuna ematen dion hori. Hain zuzen ere, zentralkeriazko batasuna. Atemania-n eta italia-n eman zen bezela, XIX-gn. gizaldian bukatu zen; eta hori zela-ta diktadúra fazista baten formakera hartu zuen sasi-batasun horrek, hau da, "separatistas" deiakoerl emandako erantzuna bioientzi itsu eta zoroan zegoen.

Hiru herri haietatik bitan ez du fazismuak gehiago aginduko; Franko, ordea, Espania-ko

[5] Zailtasun hauen garrantzia ikusteko, hona hemen exenplu bat: Cuba eta URSS artekoa.

Buru geldituko da. Behin batez honela mintzatu zitzaidan Euskaldun bat "Guk, frankismuaren zorte bildurgarrizkoa dugu". Bildurgarrizkoa, bai; zergatik esan, ordea, "zortea"? Begira egoera nahastuagoa izanen litzake, baldin Espaniako erregimena burges-demokraten eskutan balego; zeren agintaritzak denborari denbora ematen utziko bait lioke eta, promesa paltsoak beti gerorako utziaz, "berrikuntzak" kalendarioetan bakarrik biziko iirake. Hau dala-ta, erreformista talde hazi bat sortuko litzake zihur Euskaldunen artean, gobernu zapaltzailearekin alkartuko litzake eta estatuto federalista eta **erregalatutako** batekin konformatuko litzake. 1937 ezkero, erreformisten amets zozoak salatzen etorri da frankismoaren basakeri itsua.

Edozein eskabide agertu orduko, erantzuna bakarra izanen zen, eta gaur: odolezko zapalketa. Zergatik harritu, jakinik erregimena hortarako dagoena? Bainan esan dezagun erregimen hau dela Espania kolonizatzaiiearen **egia**. Modu batekoa ala bestekoa izan Espania-ko gobernuaren formakera, ba dakigu Espania zentratizatuak errotik desaprobatzen duela euskal "separatismua"eta hartara ezkero, azken finean, presto legokeala Euskadi-ko edozein iraultza odoletan itoarazteko. Idealismu zentralistaren makina pean fabrikatuak izan diren neurriko gizon abstratu batzu baizik ez dira espainolek eta usté dute, jaleo-sortzaile ale. batzu aparte, penintsulako beste bizilagun guztiek heuren antzeko direla. **Fede** onez ote diote hau? Ez, noski, zeren ba dakite Euskadi ba dela; halare, gorde egin nahi dute: hots, euskalduntasunaren baiezteak amorratu-arazi egiten ditu eta Euskaldun bezela gorrotatzeraino iristen dirá, hau da,, gizon konkretu bezela gorrotatu.

Sakonagora joaz: agíntaritzako gizonek ondo dakite erregimen kolonial hori Euskadi-n itzaliko balitz, berehala ekarriko lukeala honek miseriaren hedadura Castilla eta Andaluzia-ko lurratdetan zehar. Beraz, Errepublika bera ere, azken batean, frankismua partitu zen egoera berdiñera helduko litzake. Frankoren gobernuak Euskaldunei dakarkien "zortea"honetan dago, alegia kolonialkeriaren beneíako arpegia ikusarazten diela, eta honek ez bide du ezer eztabatdatzeko lekurik ematen; honek zapaldu edota hil egiten du.

Bioientzi zapalgarri hori ezin ebitatu ditekean ezkero, kolonizatuek dadukaten irtenbide bakarra biolentziari biolentziarekin erantzutea izanen da. Erreformisten tentaldia zokoratuta dagoelarik, euskal herria radikaldunagotzen datorke; ba daki, gaur-gaurkoá, ez dela posible askatasuna gerra harmaturik gabe.

Burgos-ko epaitza. puntu hontan, aski garbia da; ondo zekiten "akusatuek"zer irriskua zetorkien espainolei arpegia emateagatik espetxeratzeak, torturak, hiltzerainoko epaiak. Hau dena zekitelarik burrukatu zuten, ez noski zapaltzaileak segitun uxatuko zituzten esperantzetan, ixileko harmada bat osatzen lagundu-asmotan baizik. P.N.B. hiltzear ba dago, honegatik da: tropa fazisten kontrako Euskaldunen irteera bakarra herri osoa harmetan altxatzea zela, usté zutelako. Askatasuna ala heriotza; hitz hauek atzo Cuba-n eta Algeria-n entzuten genituen, gaur Euskadi-n berritzen dirá. Hona hemen gaurko egoeraren esijentzi osoa: gerra harmatua Euskadi libre eta sozialista bilakatzeko. Hau lortu edo bestela burua makurtu, — ezinezkoa dena. Horra hor.

1947-tik 1959 bitartean, esijentzi hau erabat bituzik zegoen; itxuraz behintzat ez dirudi hutsune hori beteko duen ezer dagoenik; euskal populoa lantzean da, batez ere gazteak, eta 1953 eskero berriz, dena hasten da. EKIN. urte inguru hauetan intelektualen artetik sortutako talde bat dugu ¡ anartean, bere xoliltasun hartan, apenas zuen euskal problemen egiazko konzientziarik; halare, ikusten da ekintzamolde berri eta radikal bateri ekin behar zaiola.

Handik bereala, artean indartsu bainan konkorturik dagoen P.N.B. barman sartu ala ez sartu ibiliko dirá; denbora gutxi barru, jokabide estremistak markatzen dituztelako, taldeko bat kanpora botako dute "komunísmoaren"aitzakian. Talde osoak berarekin bat eginaz gero, denek utziko dute Partidu Nazionalista, zeren ordurako konbentziturik bait zeuden esperientziaz Partidu zaharrak zeraman burruka hura, 36-

an jipoitutako hura, jausirik zegoela, gerraz gero eta demokrata burgesen saldukeriaz gero, hitz hutsen jokora. Talde hori, 1959-an, partidu berri baten ardatz bilakatzen da, hots, ETA-na.

Hasieran ETA-k, bere postura teorikua hartu aurretik. herria bi tendentzitan zatiturik arkitzen du: alde batetik abertzale-joera eta bestetik langile-iraultza; 1960 ezkero eta eguneroko praktikak erakutsita, bi burruka-mota hoiek alkarrik joan behar lutekeala konturatzen da, eta alkarri argi eginez biok batera zuzenduak izan behar lirakeala heuren organizazioen bitartez. Hauxe zen, bada, orduko egoeraren exijentziak astiro bainan ziurki eta **pratikuki** irakurtzeko modua. Jomuga zuzenetik hartu zituen gauzak, eta honen, proba bezela gogoratu besterik ez dago nolako krisisaldi beltzak pasatu zituen 1966-an: eskuindar "human istazaleek"utzi egingo dute; ezkertiar "unibertsalistazaleek", kolonianismuaren kontrako burruka baztertuaz gero, espainol langileengana pasatuko dira klase burruka "kimikuki garbia" pratikatu-asmoz. Hasierako zera hauek, beraz, mita idatzi teorikuek baino obekiago definitzen zuten ETA-ren linea. Garbiketa hauek eginda gero, behin 68 ezkero, ETA-k, teorikuki definitu nahiko du: printzipioak emanik daduzka, zeren talde barruko burrukan zerturik bait dago zer arrastotik jo eskuindarren kontra eta ezkertiar zentral ista batzuen kontra; honela, bada, egoera beraren esijentzi objetibuetatik apurka-apurka jauikitzen datorrena jaso baizik ez dute egiten. ETA-k lau frenteen plangintza eginen du bere burrukarako langile frentea, kultural frentea, politiku frentea eta militar frentea.

Lauok batera martxatuko dira eta zuzendaritza komun baten pean, bainan bakoitzak bere berezitasuna gordeko du. Langile frenteari gagozkiola, honen burruka, 1969-an, aldiz mesfidantzan dauden esku-laneko langileengana inguratzen entseiatzea izanen da, eta ahaleginduko da langile klase barman halako talde aurrerazale bat sortzen. Frente kulturalari gagozkiola, ETA, "exkasena den mailan" burrukatzen da, zapaltzaile den gobernuaren unibertsalismu desgizontzailearen kontra hain zuzen ere: une hortatik, "ikastoiak"sortzeari ekiten dio; hauek euskeraz bakarrik erakusten den lehen-mailako umetxoentzako eskolak 1968-1969-an. 15.000 ume zegoen.

Helduentzako ere aifabetizaioaren kanpaña bota zuen: Euskal Unibertsidade bat sortzeko aktibuki mugituko zen ikasleen komite bat muntatu zen (manifestazio, oporketa eta okupazioen bitartez mugituko zena); barreiatu zituen herrian zehar euskal artistak (idazleak, abes lar iak. pintoreak eta eskuitoreak) eta arrezkero herrtz-herri ibiliko dira espozizioak eginaz eta agerraldiak emanaz (kanta herrikoiak, antzerkiak kaleetan, gurenean zuzenezko teatroaz arras ezaguna den tipokoa); 66 ezkero, gizarte eskolak muntatuko ditu eta hauen bitartez langileei marxismuleninismua erakutsiko zaie.

Frente politikuari gagozkiola: hau militar frentearekin hertsiki lotua bait dago, ETA-k, maila honetan, herri osoa politizatzen du zanpazioaren eskandala plazaratzen duelako. Honela esplikatzen da guda harmatu baten gaurko esan nahia; honen helburua ez da zapaltzailea bota ahal izatea, ez. Euskaldunek mugituaraztea baino gorpuzten etorri dedin ixileko harmada askatzaile bat. ( [6] )

[6] Hain zuzen ere, 1970-ko abuztua. geroztik, tendentzi batek ETA-ren desmilitarizatze partziala eskatzen du euskal herriko langileen ekintza politikuari lekua uztearen truke; tedentzi honetako ekintzaileek diotenez, erabateko militarizatzeak, esijitzen duen ixiltasunaren neurriagatik, Organizazioa langile masatatik separatu irriskuan jarriko luke eta hórrela ezin abiatuko izanen luke bere helbururat.




El proceso de la descentralización
Fisión del átomo y descolonización
Resistencia vasca a la integración
Euskadi colonizada
Genocidio cultural
Insuficiencia del socialismo centralizador y del nacionalismo burgués
Nacionalismo revolucionario

## EL PROCESO DE LA DESCENTRALIZACIÓN

Si hay que creer a la prensa, el proceso de Burgos ha provocado tal escándalo, por haber sacado a la luz la ferocidad absurda del régimen franquista. Yo no lo creo: ¿el salvajismo fascista tiene necesidad de ser demostrado? ¿No ha habido después de 1936, encarcelamientos torturas, y ejecuciones un poco por todo el suelo de la Península Ibérica? Este proceso ha trasformado las conciencias, en España y fuera de España, porque ha revelado a los ignorantes la existencia del hecho nacional vasco; ha aparecido claramente que este hecho, aunque singular, estaba lejos de ser único y que las grandes naciones encerraban colonias en el interior de las fronteras que ellas mismas se habían construido.

En Burgos, encadenados y por así decirlo, amordazados, los acusados, a cambio de batallar en todo momento, han conseguido hacer de su "proceso "el proceso de la descentralización. Sacudida en Europa por no tomar mas que un ejemplo se enseña a la niños franceses que la historia de Francia no es otra que de la unificación de todas "nuestras "provincias, comenzada por los reyes, continuada por la Revolución francesa, y acabada en el siglo XIX. Cuando yo iba a la escuela, me decían, hay que estar orgulloso; la unidad nacional, realizada al fin, explicaba la perfección de nuestra lengua y el universalismo de nuestra cultura. Cualquiera que fuesen nuestras posturas políticas, estaba prohibido ponerlo en duda. Sobre este punto, socialistas y comunistas se encontraban de acuerdo con los conservadores: todos ellos se

